

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

10/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren museo, artxibo historiko eta kultura ondareko gordailuei lotutako zerbitzuak emateagatik eskatuko diren prezio publikoak ezartzen dituena.

1990eko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak, Tasa eta prezio publikoei buruzkoak, III. tituluan arautzen du prezio horien araubide juridiko orokorra. Foru xedapen horretako 25.2 artikulua dioenez, gizarte, ongintza, kultura edo onura publikoko arrazoiengatik hala komeni denean, jarduerak egiteak edo zerbitzuak eskaintzeak sortutako kostu ekonomikoak estaltzeko ordaindu beharko lirakekeenak baino prezio baxuagoak ezar daitezke, subentzionatutako prezio zatia estaltzeko aurrekontuko aurreikuspenak onartu ondoren, betiere.

Hori gertatzen da foru dekretu honen bidez ezartzen diren prezio publikoen kasuan. Kulturari lotutako arrazoia daude batez ere, baina baita ere gizarte eta onura publikoari lotutakoak, Kultura Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako museo, artxibo historiko eta kultura ondareko gordailuetako zerbitzuak erabiltzen dituzten bisitarien nahiz ikertzaileei kostuak estaltzeko ordaindu beharko litzatekeena baino prezioa baxuagoa eskatzeko.

Aipatutako arrazoien oinarria da, batez ere, gure kultura eta gure historia ezagutzeko baliabideak sustatzea, denboran zehar gorde ditugun materialen bitartez jendeari lekukotasuna eskaintzeko, kontuan hartu gabe gipuzkoarrak edo bisitariak diren, edo zeintzuk diren gure museo, artxibo eta gordailuetara joateko arrazoia, aisia eta jakin-mina, edo ikertzeko asmoa.

Museoen kasuan, beraien programazio eta bildumetara ahalik eta gehien iristen laguntzeko, foru dekretu honen bitartez sarrera motak eta prezioak homogeneizatuko dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren museo guztietan.

Artxibo eta beste bilduma batzuen kasuan, dokumentalak izan edo ez, eta kontuan hartu gabe non dauden kokatuta -Gipuzkoako Artxibo Historikoak gordetzeko eraikinetan, ad hoc gordailuetan, edo museotan bertan-, sarbide zerbitzuak doakoak izaten jarraituko dute, balioesten baita, alde batetik, haiek betetzen duten funtzio kulturala eta, bestaldetik, ondarea ezagutzera emateak duen interes publikoa. Hala ere, prezio publikoak ezartzen dira dokumentuak eta beste ondasun batzuk erreproduzitzeagatik, doakotasunaren eraginez euskarriak bereizi gabe erreproduzitu ez daitezken, jarrera horrek arriskuan jarriko lukeelako haien segurtasuna, kontuan hartu behar baita askok eta askok kontserbazio lan garrantzitsuak behar dituztela.

Beraz, foru dekretu honen helburua da, alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak kudeatutako museo, artxibo historiko eta kultura ondareko gordailuen sarbide erregimenak zehaztea, eta, bestaldetik, erabiltzaileak jasotzen duen zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 10/2015, de 21 de abril, por el que se establecen los precios públicos exigibles por la prestación de los servicios relacionados con los Museos, Archivos Históricos y Depósitos de Patrimonio Cultural de titularidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de tasas y precios públicos, regula, en su título III, el régimen jurídico general de dichos precios. El artículo 25.2 de la citada disposición foral establece que, cuando existan razones sociales, benéficas, culturales o de interés público que así lo aconsejen, podrán señalarse precios públicos que sean inferiores a los que resultarían de la cobertura de los costes económicos originados por la realización de las actividades o la prestación de los servicios que motivan su exacción, previa adopción de las previsiones presupuestarias oportunas para la cobertura de la parte del precio subvencionada.

Esto es lo que ocurre con los precios públicos que se fijan por el presente decreto foral. Existen razones básicamente culturales, pero también sociales y de interés público que justifican que el importe del precio exigido a las personas, tanto visitantes como investigadoras, que hacen uso de los servicios relacionados con los Museos, Archivos Históricos y Depósitos de Patrimonio Cultural gestionados desde la Dirección General de Cultura, sea inferior al que habría de aplicarse para cubrir los costes de los mismos.

Dichas razones consisten básicamente en fomentar la accesibilidad a nuestra cultura y nuestra historia a través del conocimiento de cuantos materiales hemos ido preservando a través del tiempo para que ofrezcan testimonio de todo ello al público en general, independientemente de si son de Gipuzkoa o visitantes, y de si se acercan a nuestros museos, archivos y depósitos por motivos de ocio y mera curiosidad o con un espíritu investigador.

En el caso de los museos, y de cara a facilitar la máxima accesibilidad a su programación y colecciones, el presente decreto foral homogeneiza las modalidades y precios de entrada en todos aquellos museos de titularidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En el caso de los archivos y otras colecciones sean éstas documentales o no, e independientemente de su ubicación en edificios destinados a custodiar los Archivos Históricos de Gipuzkoa, en Depósitos ad hoc o en los propios museos, el servicio de acceso mantiene su gratuidad, valorándose la función cultural que cumplen y el interés público de la difusión del patrimonio. Sin embargo, se establecen precios públicos por la reproducción de documentos y otros bienes en aras a evitar que la gratuidad produzca como efecto indeseado la indiscriminada reproducción de soportes, lo que podría llegar a poner en riesgo su integridad, dada la importante labor de conservación que muchos de ellos requieren.

Así constituye el objeto del presente decreto foral definir los regímenes de acceso a los Museos, Archivos Históricos y Depósitos de Patrimonio Cultural gestionados por el Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa y establecer los precios públicos a satisfacer por los servicios a los que la persona usuaria accede.

Horren arabera, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko saioan eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak kudeatutako museo, artxibo historiko eta kultura ondareko gordailuetako zerbitzuak erabiltzen dituztenek ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren titularitateko museo, artxibo historiko eta kultura ondareko gordailuek aplikatu behar dituzte foru dekretu honetan ezarritako zerbitzuen prezio publikoak.

1. Museoak:

- a) Untzi Museoa.
- b) Zumalakarregi Museoa.
- c) Igartubeiti baserria.

2. Artxibo historikoak:

- a) Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa).
- b) Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa (Oñati).

3. Kultura ondareko gordailuak (Gordailua).

3. artikulua. Ordaintzera behartuak.

Jarraian aipatzen diren zerbitzuak eskatzen dituztenak behartuta daude foru dekretu honetan araututako prezio publikoak ordaintzera:

– Museoetarako sarbide zerbitzua, hau da, sarrera eta bisita.

– Artxibo historikoetan, kultura ondareko gordailuetan eta museoetan gordetako euskarriak erreproduzitzeko zerbitzua.

4. artikulua. Modalitateak eta zenbatekoak.

A. Museoetan, jarraian aipatzen diren sarbide motak ezarzen dira, eta beraiei dagozkien tarifak bat datoz foru dekretu honen I. eranskinean zehazten diren zenbatekoekin.

1. A tarifa, Orokorra: sarrera indibiduala. Egun baterako balioko du, eta bilduma iraunkorra bisitatzeko aukera emateaz gain, bisita egunean jendearentzat irekita dauden aldi baterako erakusketak bisitatzeko aukera ere emango du.

2. B tarifa, Taldeak: taldeentzako sarrera. Halakotzat hartuko dira 5 pertsonak edo gehiagok egindako bisitak.

3. C tarifa, Murriztua: prezio murriztuko sarrera. Egiaztagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala badagokio, tarifa orokorreko prezioen gaineko % 50eko murrizketa aplikatuko da kasu hauetan:

a) Familia ugarietako kideak, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 2. artikulua, eta lege hori garatzen duen abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

b) Edozein irakaskuntza ziklotan ikasten ari diren ikasleak, derrigorrezko hezkuntza izan edo ez.

c) Helduak, 65 urtetik gorakoak.

4. Doako bisita.

a) Bisitari guztientzat egun hauetan, jaiegunak ez badira:

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el día de la fecha,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

Este decreto foral tiene por objeto establecer los precios públicos a satisfacer por la prestación de los servicios relacionados con los Museos, Archivos Históricos y Depósitos de Patrimonio gestionados por el Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Los precios públicos por los servicios establecidos en el presente decreto foral serán aplicados por los Museos, Archivos Históricos y Depósitos de Patrimonio Cultural de titularidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

1. Museos:

- a) Museo Naval - Untzi Museoa.
- b) Museo Zumalakarregi.
- c) Caserío-Museo Igartubeiti.

2. Archivos Históricos:

- a) Archivo General de Gipuzkoa (Tolosa).
- b) Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa (Oñati).

3. Depósitos de Patrimonio Cultural (Gordailua).

Artículo 3. Personas obligadas al pago.

Están obligadas al pago de los precios públicos regulados en el presente decreto foral todas aquellas personas que soliciten:

– El servicio de acceso a los Museos, consistente en la entrada y visita a los mismos.

– El servicio de reproducción de los soportes custodiados en los Archivos Históricos, Depósitos de Patrimonio Cultural y Museos.

Artículo 4. Modalidades y cuantías.

A. En los Museos, se establecen las siguientes modalidades de acceso, cuyo reflejo tarifario queda fijado en las cuantías que se determinan en el anexo I del presente decreto foral.

1. Tarifa A, General: entrada individual. Será válida para un día y dará acceso tanto a la visita de la colección permanente como, en su caso, a las exposiciones temporales que sean coetáneas el día de la visita.

2. Tarifa B, Grupos: entrada para grupos. Tendrán esta consideración las visitas realizadas por 5 o más personas.

3. Tarifa C, Reducida: entrada de precio reducido. Previa presentación del documento acreditativo válido y debidamente actualizado, en cada caso, se aplicará una reducción del 50% sobre los precios de la tarifa general, en los siguientes supuestos:

a) Miembros de familias numerosas según dispone el artículo 2 de la Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección de Familias Numerosas y el Real Decreto 1621/2005, de 30 de diciembre, de desarrollo de la citada Ley.

b) Estudiantes que cursen estudios en cualquiera de los ciclos de enseñanza, ya sea ésta obligatoria o no.

c) Personas mayores de 65 años.

4. Visita gratuita.

a) Para cualquier visitante, en los días siguientes y siempre que no sean festivos:

Ostegun guztietan, apirilaren 18an (Munduko Ondarearen Nazioarteko Eguna) eta maiatzaren 18an (Museoen Nazioarteko Eguna).

b) Hezkuntza taldeentzat, edozein irakaskuntza ziklotan ikasten ari diren ikasleek osatutakoentzat, ziklo horiek derrigorrezko hezkuntzakoak izan edo ez, eta haien irakasle edo laguntzaileentzat.

Bisita doakoa izan ahal izateko, sarrera mota horren erre-serba egin beharko da nahitaez. Erre-serba egiterakoan, ikaste-txearen datuak eman behar dira, eta baita museoak bisita kude-atzeko behar dituen gainerako datu guztiak ere.

c) Gainerako taldeek -turistikoek, kultura elkarteek, etab.-doako bisitak egin ahal izango dituzte sarreraren erre-serba egiten badute, betiere, museoaren hitzartutako eguna osteguna bada edo bisitari guztiak sarrera doan duten egun bat bada.

d) Hurrengo kolektiboen barruan dauden bisitariarentzat, egiaztagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala dagokionean.

– 14 urtetik beherakoak; pertsona heldu batekin joango dira, sekula ere ez bakarrik,

– Gazte txartela, gazteen txartela edo Europako baliokidea dutenak, europar Gazte Txartel Elkartearen esparruan (EYCA - European Youth Card Association),

– ICOM elkarteak (Museoen Nazioarteko Kontseilua),

– desgaitasunen bat duten pertsonak, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubide eta Gizarteratze Lege Orokorrean, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen 4.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Laguntzailea ere museora doan sartu ahal izango da, bere laguntza beharrezkoa bada bisita egiteko,

– Langabezia egoera legalean dauden pertsonak, eta

– Diru Sarrerak Bermatzeko Prestazioa edo Laguntzak, eta Kotizatu Gabekoan Pentsioa jasotzen duten pertsonak.

B. Artxibo historikoetan, kultura ondareko gordailuetan eta museoetan, azterlan nahiz ikerketa alorreko xede administrati-boetarako erabiltzen diren euskarrien erreproduzio zerbitzuengatik kobratu beharreko prezio publikoak zehaztuta daude foru dekretu honen II. eranskinean.

Gipuzkoako museo, artxibo historiko eta kultura ondareko gordailuetako langileek baliabide propioekin egindako erreproduzioei bakarrik dagozkie aipatutako II. eranskinean ezarritako prezioak, eta baliabide horien barruan, eranskinean bertan kontrakoak adierazi ezean, lan horretarako behar diren euskarriak daude.

Zerbitzuen eskatzaileek ordaindu beharko dituzte aparteko baliabideak behar dituzten erreproduzioen gastuak, eta baita prestakuntzari buruzko gastu gehigarriak ere, hala nola enbala-je eta bidalketa gastuak eta sortzen den beste edozein gastu.

Dokumentuak erreproduzitzeko zerbitzuetarako, III. eranski-nean agertzen den eredia erabiliko da.

Prezio publikoak ordaintzetik salbuetsita geratzen dira administrazio publikoetako erakundeak, hau da, 1992ko azaro-aren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 2.1 artikuluan aipatutako erakundeak.

5. artikulua. *Bisitak sustatzeko neurriak eta baimen bere-ziak.*

Kultura alorraren eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaz, lankidetzeta hitzarmenak sinatu ahal izango dira hirugarren batzuekin museoen bisita sustatzeko, eta bisita-rien kopuru berezien arabera sarrera orokorraren prezioaren gain %50 arteko murrizketa aplikatu daiteke.

Todos los jueves, el día 18 de abril (Día del Patrimonio Mundial) y el 18 de mayo (Día Internacional de los Museos).

b) Para los grupos educativos, constituidos por estu-dian-tes que cursen estudios en cualquiera de los ciclos de ense-ñanza ya sea ésta obligatoria o no, y sus profesores, profesoras o acompañantes.

Para hacer efectiva esta gratuidad, será obligatoria la reserva de este tipo de entrada. A la realización de la reserva deberán facilitarse los datos del centro educativo, y cuantos otros resulten necesarios para la gestión de la visita por parte del museo.

c) Los demás grupos; turísticos, asociaciones culturales, etc. podrán acceder a visitas gratuitas, siempre que procedan a reservar la entrada y la fecha concertada con el museo coincida en jueves u otro día de gratuidad para cualquier visitante.

d) Para visitantes que se integren en cualquiera de los siguientes colectivos, previa presentación del documento acre-ditativo válido y debidamente actualizado, en cada caso:

– Menores de 14 años, no pudiendo acceder de forma indi-vidual, sino siempre acompañados de una persona adulta,

– Titulares de Gazte txartela, carné joven o equivalente europeo en el marco de la Asociación Europea del Carné Joven (EYCA - European Youth Card Association),

– Miembros de la Asociación ICOM (Consejo Internacional de Museos),

– Personas con discapacidad, según dispone el artículo 4.2 del Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social. También podrá acceder al museo de forma gratuita el/la acompañante, siempre y cuando su asistencia resulte necesaria para realizar la visita,

– Personas en situación legal de desempleo, y

– Personas receptoras de (RGI) Renta de Garantía de Ingresos o (AGI) Ayudas de Garantía de Ingresos y (PNC) Pensiones No Contributivas.

B. En los Archivos Históricos, Depósitos de Patrimonio Cultural y Museos, los precios públicos a percibir por los servi-cios de reproducción de soportes con fines administrativos, de estudio e investigación, quedan fijados en las cuantías que se determinan en el anexo II del presente decreto foral.

Los precios establecidos en el citado anexo II se refieren exclusivamente a las reproducciones realizadas con medios propios por el personal de los Museos, Archivos Históricos y Depósitos de Patrimonio Cultural de Gipuzkoa, e incluyen, salvo mención expresa en el propio anexo, los soportes necesarios.

Las reproducciones que requieran de medios extraordina-rios, así como los gastos de preparación adicionales, tales como embalaje, gastos de envío o cualesquiera otros, deberán ser satisfechos por los solicitantes de los servicios.

Para los servicios de reproducción de documentos, se utili-zará el modelo del anexo III.

Estarán exentos del pago de los precios públicos, los orga-nismos pertenecientes a las distintas Administraciones Públicas, entendiéndose por tales, únicamente las descritas en el artículo 2.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 5. *Medidas de Fomento de visita y autorizaciones especiales.*

Mediante orden foral de la persona titular del Departamento en que recaiga la competencia de Cultura, podrán acordarse convenios de colaboración con terceros para el fomento de la visita a los museos, y que en orden al volumen especial de visi-tantes, incorporen la aplicación de reducciones de hasta el 50% sobre el precio de entrada general.

Aldi berean, foru aginduaren bitartez, eta prezioaren gain %50 arteko murrizketa berdinarekin museo bat baino gehiagotara sartzeko abonua edo txartel bakarrak ezarri ahal izango dira.

6. artikulua. Prezioak eguneratzea.

Prezioak berrikusteko adinako kostuen egoera aldaketarik izanez gero, beti ere dagokion txosten ekonomikoaren bitartez justifikatu ondoren, eta Kultura alorraren eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaz, I. eta II. eranskinetan eta foru dekretu honetan ezarritako prezioak eguneratuko dira.

7. artikulua. Jabetza intelektualaren gaineko legeria betetzea.

Edozein euskarritan emandako erreprodukzioek jabetza intelektualaren gaineko legeriak eta aplikatu beharreko gaineko araudiak ezarritakoa bete behar dute.

Nolanahi ere, erreprodukzioak erabiltzerakoan, baimendutako xede espezifikoar esrespetatu beharko da.

8. artikulua. Administrazioa eta kobrantza.

1. Foru dekretu honetan ezarritako prezio publikoen administrazioa eta kobrantza Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura alorraren eskumena duen departamentuari dagokio zuzenean, hala ere, eta kontratazio administratiboan arabera, erakunde horren baimena duten entitateen bitartez ere egin ahal izango da.

2. Dekretu honen 3. artikulua arabera ordaintzera behartuta dauden pertsonak honela ordainduko dute:

– Museoen sarrera eta bisita: diruz ordainduko da museoetako leihatiletan.

– Euskarrien erreprodukzioa: diruz nahiz horretarako irekitako kontu korrontean diru sarrera eginda.

9. artikulua. Ordainketa eskatzea eta dirua itzultzea.

Zerbitzua galdegiten den bezain azkar eskatuko da xedapen honek ezarritako prezio publikoak ordaintzea.

Ordaintzera behartuta dagoen pertsonari egotzi ezin zaion arrazoiengatik ezin denean zerbitzua eman, kobratutako prezio publikoa itzuliko da indarrean dagoen legediaren arabera.

Xedapen gehigarri bakarra. Erabilera baimenak eta beste-lako zerbitzuak.

Aldi baterako erabilera baimenak 1996ko uztailaren 9ko, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondarearen 8/1996 Foru Arauari eta Administrazio Publikoaren Ondareari dagokion eta indarrean dagoen araudia jarraituz emango dira.

Aipatutakoaren kalterik gabe, hitzarmenez arautuko dira honako zerbitzu hauek:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren titularitateko funtsen edo bildumen erreprodukzioak kultura edo merkataritza helburuetarako erabiltzea, euskarria edozein dela ere.

b) Erakusketen mailegu eskubideak.

c) Espazio publikoak aldi baterako lagatzea.

Kontraprestazioaren prezioa hitzarmenean bertan ezarriko da, eta kultura alorraren eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaz baimenduko da.

Xedapen Indargabetzailea.

Indargabetuta gelditzen dira foru dekretu honetan esaten denaren kontrakoa edo bestelako zerbait dioten heinean, maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

También mediante orden foral e igual reducción de hasta el 50% sobre el precio de entrada general podrán establecerse abonos o tarjetas únicas que permitan el acceso a varios museos.

Artículo 6. Actualización de precios.

Cuando la evolución de los costes motive una revisión de los precios, y mediante la correspondiente memoria económica justificativa, por orden foral de la persona titular del Departamento en que recaiga la competencia de Cultura, se actualizarán los precios contenidos en los anexos I y II del presente decreto foral.

Artículo 7. Sometimiento a la legislación sobre propiedad intelectual.

La entrega de reproducciones en cualquier soporte estará sujeta a la legislación sobre propiedad intelectual y demás normativa vigente que resulte de aplicación.

La posterior utilización de las reproducciones deberá respetar, en todo caso, la finalidad específica para la que hayan sido autorizadas.

Artículo 8. Administración y cobro.

1. La administración y cobro de los precios públicos establecidos en el presente decreto foral corresponderá directamente al Departamento en que recaiga la competencia de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sin perjuicio de que ésta pueda realizarlo a través de la entidad que autorice en virtud de las contrataciones administrativas existentes.

2. El pago por las personas obligadas en virtud del artículo 3 del presente decreto foral, se realizará:

– La entrada y visita a los museos, en efectivo en las taquillas de los mismos.

– La reproducción de soportes, tanto en efectivo como mediante ingreso en la cuenta corriente que se designe al efecto.

Artículo 9. Exigibilidad del pago y devolución.

Los precios públicos establecidos por la presente disposición serán exigibles desde que se solicite la prestación del servicio correspondiente.

Cuando por causa no imputable a la persona obligada al pago no se realice la prestación del servicio, procederá la devolución del precio público percibido de acuerdo con la normativa vigente.

Disposición adicional única. Autorizaciones de uso y otras prestaciones de servicios.

Las autorizaciones de uso temporal se concederán conforme a la Norma Foral 8/1996, de 9 de julio, de Patrimonio del Territorio Histórico de Gipuzkoa y normativa vigente en materia de Patrimonio de las Administraciones Públicas.

Sin perjuicio de lo anterior, podrán regularse mediante convenio, las siguientes prestaciones de servicios:

a) Utilización con fines culturales o comerciales de las reproducciones de los fondos o colecciones de titularidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sea cual sea su soporte.

b) Derechos de préstamo de exposiciones.

c) Cesión temporal de espacios públicos.

El precio de la contraprestación se establecerá en el propio convenio, que será autorizado mediante orden foral de la persona titular del Departamento en que recaiga la competencia de Cultura.

Disposición Derogatoria.

Quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en el presente decreto foral.

Amaierako lehen xedapena. Ahalmena ematea exekuzio eta interpretaziorako.

Kultura alorraren eskumena duen departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau burutzeko behar diren egintzak erabakitzeko eta neurriak hartzeko. Halaber, dekretu honen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

Amaierako bigarren xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo hileko lehenengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2015eko apirilaren 21a.

HIRUGARREN DIPUTATU NAGUSIORDEA
–2005eko uztailaren 12ko 6/2005
Foru Araua, 29.b) artikulua–,
Garbiñe Errekondo Salsamendi.

KULTURA, GAZTERIA
ETA KIROL DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
(2015eko apirilaren 16ko R-83/2015
Foru Dekretua)
Jon Peli Uriguen Ansola.

(4005)

Disposición final primera. Habilitación para la ejecución y la interpretación.

Se faculta a la persona titular del Departamento en que recaiga la competencia de Cultura, para dictar los actos y adoptar cuantas medidas sean necesarias para la ejecución del presente decreto foral, así como para resolver las cuestiones que surjan en su interpretación.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el primer día del mes siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 21 de abril de 2015.

LA TERCERA TENIENTE DE DIPUTADO GENERAL
–artículo 29.b) de la Norma Foral
6/2005, de 12 de julio–,
Garbiñe Errekondo Salsamendi.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTE,
(Decreto Foral R-83/2015,
de 16 de abril)
Jon Peli Uriguen Ansola.

(4005)

I ERANSKINA / ANEXO I
MUSEOETARA SARTZEKO PREZIO PUBLIKOAK / PRECIOS PÚBLICOS ACCESO A MUSEOS

Sartzeko zerbitzua. Kontzeptua: Sarrera eta bisita (BEZ gabe) Servicio de Acceso. Concepto: Entrada y visita (IVA exento)	PREZIO PUBLIKOA PRECIO PÚBLICO
A tarifa: Orokorra / General	
Sarrera indibiduala / Entrada Individual	3,00 €
B tarifa: Taldeak / Grupos	
5 lagun edo gehiago / 5 o más personas	2,00 €
C tarifa: Murriztua / Reducida	
A tarifaren, Orokorraren, gaineko %50eko murriztapena: Reducción del 50% sobre Tarifa A, General, a: 1. Familia ugariako kideak / Miembros de familias numerosas 2. Ikasleak / Estudiantes 65 urtetik gorakoak / Mayores de 65 años	1,50 €

II ERANSKINA / ANEXO II
ERREPRODUKZIO ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK / PRECIOS PÚBLICOS SERVICIOS DE REPRODUCCIÓN

Erreprodukzio zerbitzua (BEZ barne) Servicio de reproducción (IVA incluido)	PREZIO PUBLIKOA PRECIO PÚBLICO
A tarifa: Fotokopiak txuri-beltzean / Fotocopias en Blanco y Negro	
Gutxieneko prezioa (1-10 kopia) / Precio mínimo (de 1 a 10 copias) Orri gehigarri bakoitzeko / Por cada hoja adicional:	2,00 €
DIN A4	0,10 €
DIN A3	0,20 €
B Tarifa: Inprimaketak paperera euskarri digitaletik / Reproducciones a papel desde soporte digital (impresiones)	
Gutxieneko prezioa (1-10 kopia) / Precio mínimo (de 1 a 10 copias) Orri gehigarri bakoitzeko / Por cada hoja adicional:	2,00 €
DIN A4 txuri-beltzean / Blanco y Negro	0,10 €
DIN A4 koloretan / Color	0,20 €
C tarifa: Dokumentuak euskarri digitalean erreproduzitzea / Reproducciones de documentos en soporte digital	
Irudien eskaneatua (euskarririk gabe) / Escaneado de imágenes (sin soporte) Gutxieneko prezioa (1-10 kopia) / Precio mínimo (de 1 a 10 copias) Irudi gehigarri bakoitzeko / Por cada imagen adicional:	2,00 €
	0,10 €

III ERANSKINA / ANEXO III
ESKAERA EREDUA / MODELO PARA LA REPRODUCCIÓN DE DOCUMENTOS



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

DOKUMENTUEN ERREPRODUZITZEA
REPRODUCCIÓN DE DOCUMENTOS

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES		
NA / DNI	IZENA ETA BI DEITURA / NOMBRE Y DOS APELLIDOS	
Posta elektronikoa / Correo electrónico	HELBIDEA / DOMICILIO	
Tfnoa / Tfno	HERRIA / LOCALIDAD	Posta Kodea / Código Postal

ERAKUNDE DATUAK / DATOS ENTIDAD		
IFK / CIF	IZENA / DENOMINACION	
Posta elektronikoa / Correo electrónico	HELBIDEA / DOMICILIO	
Tfnoa / Tfno	HERRIA / LOCALIDAD	Posta Kodea / Código Postal

HELBURUA / FINALIDAD		
<input type="checkbox"/> IKERKETA / ESTUDIO-INVESTIGACION	<input type="checkbox"/> ADMINISTRATIBOAK / ADMINISTRATIVOS	<input type="checkbox"/> BESTELAKOAK / OTROS Zehaztu /Especificar

ZERBITZUAK / SERVICIOS				
	Gutxienezko Prezioa Precio Mínimo	Banakako Prezioa Precio Unitario	KOPURUA CANTIDAD	DENETARA / TOTAL
A tarifa, Erreprografia / Reprografía				
Fotokopiak T/B - Fotocopias B/N A4				
Fotokopiak T/B - Fotocopias B/N A3				
B tarifa. Inprimaketak paperera euskarri digitaletik / Reproducción en papel de soporte digital				
A4 kopiak T/B - Copias en A4 B/N				
A3 kopiak T/B - Copias en A3 B/N				
C tarifa. Dokumentuak euskarri digitalean erreproduzitzea (euskarria ez da sartzen) / Reproducción en soporte digital (no incluye soporte)				
Irudi eskaneatuak / Imágenes escaneadas				

DENETARA (BEZ barne)
TOTAL (IVA incluido)

BEZ %21
IVA 21%

ZERGA OINARRIA
BASE IMPONIBLE

ORDAINKETA / ABONO		
<input type="checkbox"/> ESKU-DIRUTAN / METALICO	<input type="checkbox"/> DIRU SARRERA KONTUAN INGRESO EN CUENTA ¹	SALBUESPENA / EXENCION ² <input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No

1 KK zbkia aipatu / Indicar nº CC

2 Bakarrik Administrazio Publikoak / Únicamente Administraciones Públicas

INFORMAZIOA ETA BAIMENA / INFORMACION Y CONSENTIMIENTO

Eskatzaileak baimena ematen dio Departamentu kudeatzaileari eskaera honetan aipatzen diren datu guztiak automatizatzeko, eta kasuan, hirugarrenei lagatzeko, baina bakarrik helburu estatistikoekin edo Jabetza Intelektualari buruzko Legedia betetzeko asmoarekin.

La persona/entidad solicitante da su consentimiento al Departamento gestor para que pueda proceder a la automatización de los datos contenidos en la presente solicitud y, en su caso, cederlos a terceros exclusivamente con fines estadísticos, o bien para dar cumplimiento a la normativa en materia de propiedad intelectual.

..... n, 20...ko
En a de 20....

Sinadura / Firma